

IRABAZI ITURRIAK

BeSafe-ren irabazi iturriek hainbat iturri desberdin izango dituzte, bezeroen beharretara eta zerbitzuaren malgutasunari egokituta. Bezeroek gure zerbitzua ordaintzeko aukera izango dute harpidetza-sistemaren bidez, non hileren zenbateko finko bat ordainduta, nahi duten alditan eta ordutegietan BeSafe-ren autobusak erabiltzeko aukera izango duten. Hona hemen gure irabazi iturri nagusiak:

- **Harpidetza Prima:** BeSafe-ren oinarria harpidetza sistema izango da, non bezeroek zenbateko finko bat ordainduta, hilean bidaia mugagabeak egiteko aukera izango duten. Sistema honek, gainera, erabiltzaileek zerbitzua modu etengabea eta malguan erabil dezaten ahalbideratuko du, eta hilean ordaindutako tarifekin segurtasuna eta erosotasuna eskaintzen diegu.
 - **Prezio Finkoaren Estrategia:** BeSafe-k bi faktore kontuan hartuta ezarriko du prezioa:
 - **Ezaugarrien arabera prezioa:** Zerbitzuaren erabilera eta kalitatearen arabera, bezeroak tarifak hautatuko dituzte, zerbitzuaren osagaien arabera.
 - **Merkatu-segmentatuaren eta bezeroaren perfilaren arabera:** Prezioak merkatu segmentu eta bezero mota bakoitzaren ezaugarrien arabera egokituko dira.
 - **Gazteentzako tarifa (18-25 urte):** Hilean 20€ ordainduta, bidaia mugagabeak izango dituzte.
 - **Ohiko bidaiarientzako tarifa (25 urtetik gorakoak):** hilean 25€ ordainduta, bidaiak mugagabeak izango dira.
- **VIP zerbitzuak:** Gure autobus zerbitzuak malgutasun gehiago eskaintzen du VIP zerbitzu baten bidez, non erabiltzaileek euren ibilbidea pertsonaliza dezaketen. Kasu honetan, BeSafe-k erabiltzaile bakoitzari zuzenean bere helmugara eramango duen zerbitzua eskainiko die, normalean autobusaren ibilbide tradizionala jasan beharrean. VIP.Safe zerbitzua erabilera indibidualetarako izango da, eta prezioa ibilbidearen luzeraren, helmugaren urruntasunaren eta bezeroaren premien arabera egokituko da.
 - **Prezio egokitzapena:** VIP zerbitzuaren prezioa, ibilbidearen eta helmugaren arabera aldatuko da, eta honela, bezeroari zerbitzu pertsonalizatu eta eksklusibo bat eskainiko diogu, segurtasuna eta erosotasuna lehenetsiz.
- **Zerbitzu Espezializatuak eta Osagarriak:** BeSafe-k bezeroei aukerako osagarriak eta espezializatutako zerbitzuak ere eskainiko dizkie, adibidez, aseguru osagarriak, bidaiaren segurtasuna hobetzeko. Horrela, bezeroek euren beharretara egokitutako zerbitzuak aukeratu ahal izango dituzte, eta horrek irabazi iturri osagarriak sortuko ditu.
 - **Aseguru osagarriak:** BeSafe-k bidaiaren segurtasunari buruzko aseguruak eskaintzen ditu, adibidez, osasun estaldura edo gaixotasunetarako estaldura gehigarriak.
 - **Zerbitzuak geografikoki espezializatuta:** Hiri zehatzetan zerbitzu eta estaldura geografikoak egokituz, bezeroei prezio malguagoak eta zerbitzu eksklusiboagoak eskaintzeko aukera izango da.
- **Erakundeentzako Zerbitzuak eta Promozioak:** BeSafe-k erakunde eta enpresa handientzat zerbitzu bereziak ere eskainiko ditu. Enpresek, taldeek edo unibertsitateek BeSafe-ren autobus zerbitzuak eskatu ahal izango dituzte langileentzat edo ikasleentzat, eta horrek iturri berriak eta kontratu espezializatuak sortuko ditu. Zerbitzu kolektiboak eta promozioak enpresen, ikastetxeen eta bestelako erakundeen beharrak asebite ahal izango ditu.
 - **Kontratu bereziak:** Erakundeek zerbitzuen erabilera handituz, promozioak eta tarifa bereziak erabiliz, BeSafe-k irabazi iturri kolektiboak lortuko ditu.